

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA
Atala:	0230 - Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia
Programa:	320 - Ibaiak leheneratzea
Funtzionala:	172 - Ingurumenaren babesa eta hobekuntza

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Ur-ekosistemen berreskurapen morfologikoa eta ingurumen berreskurapena bultzatzea, ibaiak berreskuratzeko obrak eginez.

Egoeraren diagnostikoa:

Hamarkada luzetan, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak ahalegin handia egin du Lurralde Historikoko ur-masen egoera hobetzeko. Aurrerapen handienak eskualdeko hornidura eta saneamendu sistemen garapenari eta eraikuntzari esker lortu dira, eta horrek ibaietako uraren kalitatea hobetzea ahalbidetu du. Hala ere, Urari buruzko Esparru Zuzentzarauak (60/2000/EEE) ur-masen kalitatearen kontzeptu berri bat sartu zuen, uraren balio fisikokimiko hutsak gainditzen dituena. Kalitatearen definizioan, gainera, zerikusia dute komunitate biologikoen egoerak eta ibilguaren baldintza morfologikoak.

Ibilguen antropizazioak eragin negatiboa du ibaien egoera ekologikoan. Zehazki, Gipuzkoako ibaietan dauden 800 oztopo inguruk, batez ere presa txikiek, ibaien jarraitutasunik eza eragiten dute. Izan ere, hesiak dira ibaian bizi diren organismoen goranzko eta beheranzko migrazioetarako, eta bereziki eragiten diote arrain-fauna migratzaileari, hala nola izokinari, oztoporik gabeko ibaiak edo iragazkorak behar baititu bizi-zikloa osatzeko. Gainera, oztopo horiek sedimentuen eta mantenugaiaren garraioa aldatzen dute, emariak murrizten dituzte deribazioengatik eta lurruntzea gehitzeagatik beren ontzitik, eta ibaian beherako erregimen hidrologikoa aldatzen dute, berdinduz.

Aldaketa klimatikoaren ondorioz prezipitazioak gutxitzea aurreikusten da. Gainera, tenperaturak handitzeak ebapotranspirazioa handitzea ekarriko du. Horrek guztiak ibaien estres hidrikoa larriagotuko du, eta eragin horiei aipatutako oztopoek eragindakoak gehitu behar zaizkie.

Une honetan, gizartearen eta legearen demanda da ibaien egoera ekologiko ona lortzea.

Behararen deskribapen xehatua:

Ibaien egoera ekologiko ona lortzeko, beharrezkoa da morfologia berreskuratzea.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta Gipuzkoan ibai naturatzen izendatutako Kontserbazio Bereziko Eremuko kudeaketa dokumentuetan definitzen dira, datozen urteetan lege onartutako ingurumeneko helburuak betetzeko, inplikaturako administrazioek burutu beharreko jarduketak morfologikoak. Jarduketa horien artean, garrantzi berezia du ibaietan dauden oztopoak iragazkortzeak, bai oztopo horiek kenduz, hori posible denean, bai arrainak igartzeko obrak eginez.

Nori zuzendua:

Publikoa oro har (ingurumena lehengoratzeko zerbitzu ekosistemikoak).

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Programa horri loturako langilearen gaitasun teknikoa Lan batzuetarako laguntza teknikoa kontratatzea.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Landutako hainbat gairi buruzko azterlan espezifikoak egitea. Esperientziak trukitzea (Europako esparruko proiektuetan parte hartzea). Ingurumena lehengoratzeko proiektuak idaztea eta obrak burutzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

GIS aplikazioa Uren eta naturguneen araudi erregulatzailleek ezartzen dituzten ingurumeneko helburuak betetzea.

Programaren arau esparrua:

Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EB Zuzentaraua, 2000ko urriaren 23koa, uren politikaren arloan Batasuneko jardura esparru bat ezartzeko.

Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 22an emandako 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.

1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, honako demarkazio hauetako plan hidrológicoak berrikustea onartzen duena: Kantauri Mendebalde, Gualdalquivir, Ceuta, Melilla, Segura eta Jucar-eko demarkazio hidrografikoak, eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialde, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana eta Ebroko demarkazio hidrografikoak

849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatuz.

Araudi tekniko espezifiko eta legeri sektoriala.

DEPARTAMENTSAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Uretako ekosistemen leheneratze morfologikoa eta ingurumen aldetikakoa bultzatzea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Ibaiak lehengoratzeko idatzitako proiektu kopurua	Kopurua	>=	20,00	10,00	20,00	40,00
Ibaiak leheneratzeko gauzatutako obren kopurua.	Kopurua	>=	8,00	2,00	5,00	15,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Ibai berreskuratze obrak planifikatzeko eta kontratatze behar diren dokumentuak idazteaz gain, baita horien tramitazioa eta exekuzioa aurrera eramatea ere.



% 99,89

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	1.135.199,00		464.000,00	2024/01/01	2024/12/31	
1.1 Ekintza Ibai leheneratzearen azterlanak zein proiektuak idaztea	179.303,72			2024/01/01	2024/12/31	
1.2 Ekintza Ibai berreskuratze obrak kontratatuta eta exekutatu	954.619,40		464.000,00	2024/01/01	2024/12/31	
1.3 Ekintza Programaren dirulaguntzen edota kontratuen mapa linguistikoa osatu.	1.275,88			2024/01/01	2024/12/31	



GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Mugikortasuna eta antolaketa egokiak izatea lurraldean

Beharraren deskribapen xehatua:

Ibai eremuak leheneratzea.



HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Euskararen erabilera bultzatu, barne harremanetan zein kanpokoetan.

Kategoria	Nola
1.- Zerbitzu hizkuntza	Zerbitzuaren barne-komunikazioetan euskararen erabilera lehenesten da. Euskararen erabilera bultzatu, barne harremanetan zein kanpokoetan.
	Zerbitzuaren barne-komunikazioetan euskararen erabilera lehenesten da. Euskararen erabilera bultzatu, barne harremanetan zein kanpokoetan.
8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak	


GJH

Beharraren deskribapen zehatua:

Programa honetan inplikaturako GJHek zuzeneko harremana dute programan bertan definitutako ekintzekin, eta haiekin partekatzen dute egoeraren diagnostiko bera.

Kuantifikazioa: 1.133.923,12 (% 99,89)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 <p>6-Ur garbia eta saneamendua</p> <p>Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.</p>	1.133.923,12		
Helburura	6.6 - 2030. urterako, saneamendu eta higiene zerbitzu egoki eta ekitatiboetarako sarbidea lortzea, eta aire zabaleko gorozkiei amaiera ematea, arreta berezia jarri emakumeen eta kalteberatasun egoeran dauden pertsonen beharrei.	1.133.923,12	
Jarduketa ildoak			
	Ibai berreskuratze obrak planifikatzeko eta kontratatze behar diren dokumentuak idazteaz gain, baita horien tramitazioa eta exekuzioa aurrera eramatea ere.	1.133.923,12	
Guztira		1.133.923,12	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2023	2024	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2025	2026	2027	2028 eta hurrengoak/ 2028 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	216.238,00	217.699,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	40.000,00	33.000,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	10.000,00	10.000,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	266.238,00	260.699,00					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	980.000,00	874.500,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	980.000,00	874.500,00					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	1.246.238,00	1.135.199,00					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		217.699,00				217.699,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		33.000,00				33.000,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES		10.000,00				10.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		260.699,00				260.699,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		874.500,00				874.500,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		874.500,00				874.500,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		1.135.199,00				1.135.199,00

Sarrerren kapituluak / Capítulos de ingresos	2023	2024	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes			
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	376.000,00	464.000,00	464.000,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	376.000,00	464.000,00	464.000,00
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	376.000,00	464.000,00	464.000,00